

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Landutako informazioaren bilaketarako estrategiak aplikatuz, emandako euskarri desberdinetako (paperezkoak, ikus-entzunezkoak zein digitalak) testuetan finkatutako komunikazio-asmoari dagokion <b>informazio zehatza identifikatu eta erregistro-fitxan jaso</b>	<p>1.1. <i>Idatzi nahi den testuaren komunikazio-asmoaren baitan beharrezko informazioa identifikatzen du.</i></p> <p>1.2. <i>Beharrezko informazioa aurkitzeko estrategiak erabili eta adierazten ditu.</i></p>
2. Testua planifikatzeko komunikazio-asmo jakin bati erantzuten dion <b>informazioa</b> (norberak jasotakoa nahiz emandakoa) <b>deskribapen-egitura irudikatzen duen eskema grafikoan antolatu.</b>	<p>2.1. <i>Informazioa gaiaren eta emandako azpi-gaien baitan sailkatzen du.</i></p>
3. Emandako dibulgazio-artikuluen sarrerren <b>egokitasuna baloratu</b> emandako irizpideen baitan eta irizpide horien arabera emandako <b>sarrerak eraldatu.</b>	<p>3.1. <i>Testuaren laburpena idazten du eskema grafikoko azpi-gaiak lotuz.</i></p> <p>3.2. <i>Komunikazio egoeraren edukiaren baitan sarrera egokia hautatzen du.</i></p> <p>3.3. <i>Emandako hizkuntza-baliabideen artetik egokiak hautatuz sarrera eraldatzen du.</i></p>
4. Ideien arteko <b>erlazio semantikoa adierazteko landutako hizkuntza-baliabideak aplikatu</b> bai horretarako prestatutako testuen osaketan, bai norberaren testuaren sorkuntzan, bai berrikusketa prozesuan.	<p>4.1. <i>Gehiegizko errepikapenik egin gabe, jarraipen tematikoa bermatzeko hizkuntza baliabide egokiak hautatzen ditu.</i></p> <p>4.2. <i>Ideiak gehitzeko testu antolatzaile egokiak hautatzen ditu.</i></p>
5. Bai norberak, bai besteek sortutako testuetako informazioa hartzailearentzat ulergarria izan dadin, <b>landutako baliabideak</b> (linguistikoak zein edizio digitalekoak) <b>egoki erabili.</b>	<p>5.1. <i>Azalpenak eta adibideak emateko antolatzaileak egoki erabiltzen ditu.</i></p>
6. <b>Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa</b> aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	<p>6.1. <i>Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.</i></p> <p>6.2. <i>Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</i></p>